

ERREENTERIA ZAITZEN

KOMUNITATEA ETA ZAITZA ARITZEN

Talde teknikoa



Kolaboratzaileak



Errenteriako Udala

Finantziak



Aurkibidea

Hitzaurrea.....	4
Metodologia.....	6
Egoeraren Diagnostikoa.....	8
Errenteriako Zaintza beharrak.....	8
Komunitatearen funtzioa zaintzan.....	15
Gizarte zentroak: elkartzeko espazioa.....	17
Errenteriako zaintza mahaia. Aukerak eta desabantailak.....	20
Gizarte zerbitzuak: hariak josteko orratza.....	22
Proposamenak.....	26
Zaintzaren inguruko sentzibilizazioaren beharra.....	26
Zaintzarako aholkularitza zerbitzua.....	26
Zaintzaren behatokia.....	26
Osasun mentala eta babes psikologikoa.....	26
Zaintzaileak zaintzeko programak.....	27
ETXEKO-LAN lan poltsa publikoa indartu.....	27

Hitzaurrea

Bakardade egoerei nola aurre egin aztertzen eta diseinatzen geunden bitartean, albiste honek kolpatu gintuen: "Asesinado por la indiferencia": así murió el prestigioso fotógrafo René Robert¹. Artista hipotermiaz hil zen urtarrilaren 20ko goizaldean, Parisen bere auzoan ibilaldia egiten zegoen bitartean, estropezu egin eta lurrean bederatzi orduz etzanda egon ondoren, inoren laguntza jaso barik. Azken egunotan ere jakin izan dugu, Bizkaian emandako kasu baten ondoren, lurralde horretan urtero 20 pertsona inguru hiltzen dira inork faltan bota barik².

Sentsazionalismoan sartu barik, zer esaten digute berri hauek? Nora doa gure gizartea? Kasu hauek agian muturreko egoerak dira, eta noski, ezin dira estrapolatu, baina izebergaren punta baino ez dira. Hau da, muturreko egoera hauek posible egiten dituen gizarte batean bizi gara. Argi dago, instituzio publikoek lidergoa eraman eta lanketa egiteko enkargua euki beharko luketela, baina haratago joanda, ez al dugu herritarrok zuzeneko erantzukizunik egoera honen aurrean?

1 <https://www.dw.com/es/fot%C3%B3grafo-ren%C3%A9-robert-muere-congelado-en-concurrida-calle-de-par%C3%ADs/a-60582629>

2 <https://www.elcorreo.com/bizkaia/veinte-vizcainos-mueren-20220226221602-nt.html>

Sarrera

Isolamendu eta bakardade egoerak ondorio zuzenak ditu osasunean, bereziki pertsona nagusi edo zaugarrienenetan. Egoera hauetan bizitzeak arrisku nabarmenak ekartzen ditu bai babes edo laguntza material edo instrumentalaren faltak dakartzan zailtasunengatik, zein bere inpaktu psikologikoarengatik. Gainera, askotan nabarmendu den moduan, komunitateak, alegia pertsonaren ohiko inguruan bizi diren lagunak, bizilagunak edo pertsonak, bigilantzia edo zaintza funtzio eraginkorra egiten dute. Zaintza hori ez dagoenean, zailtasun egoerak ezkutuan geratu daitezke, larriagotuz eta azken batean arazo larri bilakatuz.

Komunitateak garatu dezaken biligantzia, zaintza eta babes funtzioa, hortaz, oso baliabide garrantzitsua izan daiteke egungo egoeran. Lagunkoia eta segurua sentitzen den inguru batean bizitzeak, eta bertan integratua egoteak oso eragin positiboa dauka edonoren (baina bereziki pertsona nagusien) bizi kalitatean.

Ezin dugu ahaztu isolamendua eta bakardadea lehenagotik zetorren arazoa dela, eta pandemiak arazoa areagotu edo azaleratu duela. Beste era batera esanda, aurretik zetozen gabeziak agerian geratu dira. Eta gabezi hauen artean, mendebaldeko egungo gizarteak karakterizatzen dituen binkulazio eta zaintza komunitarioaren falta nabarmendu egin da. Nahiz eta pandemiaren momenturik gogorrenetan elkartasun eta babes dinamika ezberdinak martxan egon ziren, egungo egoera “normaltasunera” bueltatu dela esan dezakegu.

Egoera honen aurrean, zaintza sistemak eta binkulazio komunitarioa indartzeko erantzun eta dinamika berriak sortzeko ahaleginean, “Errenteria zaintzen” proiektuak, hausnarketa, azterketa eta proposizio-akzio prozesu bat garatzen ari da. Hurrengo lerroetan garatzen den dokumentua, proiektu honen diagnostiko edo egoeraren ezagutza eta azterketaren fasearen emaitzak aurkezten dira.

Metodologia

Proiektuaren lehen fase honetan, orotara 23 sakoneko elkarrizketa burutu egin dira, herrian zaintzarekin erlazioa duten pertsona eta eragile ezberdinekin, bereziki komunitate ikuspegi batetik. Konkretuki, sei elkarte edo eragile, Hirugarren Sektoreko lau eragile, Udaleko lau profesionalak hartu dute parte.

Kodea	Esparrua	Sexua
Erlontzi	Komunitatea (elkartea)	Emakumea
Erlontz	Komunitatea (elkartea)	Emakumea
Gure Leku	Komunitatea (elkartea)	Emakumea
Itzatu	Komunitatea (elkartea)	Emakumea
Patxiku Zelaia	Komunitatea (elkartea)	Emakumea
Mugimendu feminista	Komunitatea (elkartea)	Emakumea
Duintasuna	Komunitatea (elkartea)	Gizona
Sos Arrazakeria	Hirugarren sektorea	Emakumea
Sos Arrazakeria	Hirugarren sektorea	Emakumea
Sos Arrazakeria	Hirugarren sektorea	Gizona
Gurutze Gorria	Hirugarren sektorea	Gizona
Gurutze Gorria	Hirugarren sektorea	Gizona
Gurutze Gorria	Hirugarren sektorea	Emakumea
Gurutze Gorria	Hirugarren sektorea	Emakumea
Gurutze Gorria	Hirugarren sektorea	Emakumea
Etxeko zaintzaileen programa	Hirugarren sektorea	Emakumea
Caritas	Hirugarren sektorea	Emakumea
Berdintasun teknikaria	Udala	Emakumea
Berdintasun Saileko zinegotzi ordezkaria	Udala	Emakumea
Gizarte zerbitzuetako teknikari burua	Udala	Emakumea
Gizarte Zerbitzuetako Saileko eta Modernizazioa, Informazioaren Gizartea eta Herritarren Parte-hartzea azpisaileko zinegotzi ordezkaria	Udala	Gizona
Adinberri	Erakundea	Emakumea
Adinberri	Erakundea	Emakumea

Elkarrizketa hauen xede nagusia, Errenterian zaintza eta komunitatearen arteko erlazioaren gaineko ezagutzan sakontzea izan da. Modu horretan, komunitatea zaintza eskemetan integrazteko aukerak identifikatu eta etorkizunerako estrategiak eta politikak diseinatu edo perfilatzea ahalbidetzen da. Elkarrizketak garatzeko, lau gai nagusi planteatu dira: 1) elkarrizketatu/eragile bakoitzak zaintzarekin duen erlazioa; 2) Egoeraren diagnostikoa, zaintza beharren inguruan eta komunitate-zaintza erlazioa; 3) Komunitateak zaintzan duen funtzioa aztertzea; eta 4) zaintza mahaia edo koordinazio plataformaren sorreran ingurua hausnartzea.

Egoeraren Diagnostikoa

Hurrengo atalean, Erreterian dauden zaintzaren inguruko beharretan eta zaintzak arlo komunitarioarekin egun daukan erlazioan sakonduko da. Azpian azalduko den moduan, erlazio horretan, Gizarte Zerbitzuak ardatz funtzio bat bete dezakete, hari ezberdinak josteko orratz moduan.

Erreteriarako Zaintza beharrak

Logikoa eta agerikoa den moduan, herritarren behar askoren asetzeari udalak dituen tresna eta eskumenetatik haratago doaz, baita zaintzarekin zerikusia daukaten asko ere. Honek ez du esan nahi, udal instituzioek ezin dutenik ezer egin, baina bai behintzat onartu behar dela sistema eta instituzio asko daudela tartean inplikaturik. Hala ere, hurrengo lerroetan, Erreteriarako egoeraren ezagutzaren inguruko prozesu honetan identifikatu diren beharrak aipatuko dira, esan bezala, jakinda kasu askotan eskumen lokalaren gainetik daudela.

“Gauza asko ez daude Udalaren esku (pentsioak, lehen arretako osasuna, erresidentzien gestioa... Gauzarik basikoenak kanpotik datoz, osasuna, dependentzia eta erresidentzien kudeaketa... Udalak ezin du askorik egin... Erresidentzien kudeaketa negozio hutsa da. Kabia publikoa da baina gero gestioa...”

Komunitatea

Horien artean, **pertsona askoren egoera ekonomiko zaugarria** aipatu egin da elkarrizketetan zehar, bereziki pensio oso baxuko emakumeen kasua nabarmenduz. Normalean etxeko andreak izan diren emakume hauek gizonen menpe bizi izan dira ekonomikoki, ez dute behar adina kotizatu, eta egoera prekarioan aurkitzen dira kasu askotan.

“Adineko emakumeek pensio miserableak dituzte. Bikotea dutenak gizonarekiko menpekotasun izugarrian bizi dira; eta bakarrik ala alargunduak daudenak asko Diru Sarrerak Bermatzeko errentako 700 euroei esker bizi dira. Lehen ez zen kotizatzen batere., edo lan egiteari uzten zitzaien”.

Komunitatea

Bakardadea ere, aski ezaguna den moduan, premiazko arazo bat da gure gizartean, eta nahiz eta pertsona nagusiekin erlazionatzen den, adin tarte ezberdinetan inpaktu nabarmena daukela azpimarratu behar da. Aurrekoan bezala, nahiz eta hurbiletik landu dezakegun arazo bat izanda, arazo estrukturala dela onartu behar da. Zentzu honetan, hain errealitate ezaguna izanda, ez da beharrezkoa bere identifikazioan sakontzea, bai baina elkartegintzak eta parte hartzeak bere prebentzioan izan dezakeen balioa nabarmentzea.

“Familia dago normalean adineko hauen inguruan, seme alabak, ahizpak... baina ez duenak? Ez du ezer... bakarrik dago”.

Komunitatea

“Bakardadea arazo sozial bat da, ez pertsonala, eta soluzioa modu munizipalista batean eman behar zaio? Bakardadea gizarte zerbitzuei dagokie? Konpetentzialki ez. Sekulako esfortzua eta dirutza da gainera”

Udala

Bakardadean dauden herritarrak identifikatu eta haiengana hurbiltzeko ahalegina egin da azken bi urteetan. Batetik pandemia hasieran bizitako konfinamendu gogorrean 65 urtetik gorako biztanle guztiak deitu zituzten nola zeuden jakiteko. Bestetik, iaz Matia Fundazioak ikerketa bat burutu zuen bakardadea sentitzen duten herritarrak zenbat diren eta zein premia dituzte ezagutzeko.

Garrantzitsua da bakardadea agertu duten horietan antena bat egotea. Kasua gizarte zerbitzuetan edo baliabideren batekin egonik, aurreikusi eta prebenitzen da. Zein behar izango dituen baloratzen du etxeko laguntzak, adaptazioak...

Udala

Bakardadearekin estuki lotuta, **osasun mentala** indar handiarekin aipatu den gaia izan da, eta argi geratu da ondo landu beharreko eremua dela. Pandemiak osasun sistemak behar eta premia zorrotzetara mugatzea behartu egin ditu, alboan utziz beste behar eta gabezi asko, tartean osasun mentala. Gainera, pandemiak berak ere eragin zuzena izan du pertsona askoren egoera emozionalean, eta honek ere aurretik zetozen arazoak areagotu eta berriak ere sortu ditu. Hortaz, aurretik bazetorren arazoa bada ere, pandemiak osasun mentalaren gaia azaleratu egin du, politika publikoen aldetik erantzunak eskatuz. Erantzun hau, gainera, ez da espero bakarrik osasun sistematik, ulertuta parte hartzea, komunitateak etab. Balio handia izan dezaketela.

Pandemiak ere parte hartzean bere eragina izan duela identifikatu egin da, bi eremutan behintzat. Alde batetik, oso nabaria den nekea edo gainkarga psikologikoa eragiten ari da, pertsona askoren parte hartzeko “gogoak” murriztuz, kontuan izanda ere ekintza asko antolatzeko neurri eta arau zorrotzak jarraitu behar direla. Eta bestetik, pertsona askok “arrisku” sentazio bat ere garatu egin dute, nahiago izanez kutsatzeko aukerak edo esposizioa kontrolatzea, parte hartzea edo sozializazioa murriztuz edo etenez.

“Olentzero antolatzeko ere eskatu ziguten Udaletik, baina ez geunden prest. Orain neurri asko bete behar dira, eta ardura handia da... zerbait gertatzen bada gure da ardura”

Komunitatea

“Etxean gaude. Beldurragatik baino, nazkatuak gaudelako. Maskarillakin ateratzeko, etxean hobeto. Oso pesimista gaude”.

Komunitatea

Eta pandemiak parte hartzean izan duen beherakadak, mendebaldeko gizarte postmodernoen **elkartegintza, parte hartzea eta bizitza komunitarioaren beherakadaren** testuinguru zabalagoan kokatu behar dugu. Hau da soziologo eta intelektual ezberdinen aburuz (ikus, adibidez, Putnam, 2001), gure gizartean abian dagoen gizarte prozesu nabarietako bat. Eztabaida sakonetan sartu barik, honen adibideak ere batu egin dira aurkezten dugun prozesuan, aipatu denean, adibidez, “*auzoa hilda dago*”, edo “*Lehen bizilagunen sareak zeuden baina egun ez*”. Beherakada honen adibidea, elkarte askotan dagoen errelebo falta izan daiteke. Bai emakume zein pertsona nagusien elkarte askotan, errelebo falta nabaria dago, batez ere zuzendaritza eta kudeaketa lanak hartzeko.

“Hasieratik ia berdinak gaude elkartearen organoetan, ez dago belaunaldien arteko erreleborik, emakume gazteak kontsumitzaileak bakarrik dira. Gure saioak baliatzen dituzte, baina ez dira ezta atea irekitzeko gai ere. Ez dakit zer gertatuko den gu ez gaudenean”

Komunitatea

“Administrazio kontuetarako laguntza behar dugu, gestoria batekin egiten dugu. Paper pila bat eskatzen digute, internetez, eromena da guretzat diru-laguntzak eskatzea, zuriketak egitea... Honetarako gazteak behar ditugu, prestatuagoak daude, baina ez dute nahi”

Komunitatea

Arrazoi ezberdinengatik, tartean bizitza komunitarioaren beherakada, elkartzeko eta erlaziorako espazioak eta momentuak ere murriztu egin direla ondoriozta dezakegu. Hau bereziki garrantzitsua da pertsona nagusien kasuan, haien denboraren parterik handiena bizi diren inguruan pasatzen dutelako. Haien ohiko inguruan dauden aukerak murriztak badira, oso zaila izaten dute beste tokietara mugitzea haien aisia edo interesak garatzeko.

“Etxean sartu gaitu pandemiak. Lehen baino askoz gehiago kostatzen zaigu prestatu eta kalera ateratzek. Etxean akonpainatuak eta ondo gaude bitartean, gaitzerdi, baina badira bakarrik eta gaizki daudenak”

Komunitatea

“Ohartzen bazara adineko jende mordoak elkartzen da hilabete amaieran banketxe inguruan. Izango da sartu ahala dirua behar dutenak, baina nik ere uste dut elkartzeko espazioa ere badela. Non aurkitzen dira adineko pertsona hauek orain? Inon... lehen gizarte ekintzetan elkartzen ziren: hileta elizkizunetan, agian azokan, tabernetan gutxi batzuk.. baina orain? Ez dute elkartzeko espaziorik”

Komunitatea

Desafekzio politikoa, parte hartzearen beherakada, edota instituzioekiko distantzia gainditzeko eta gizartearen erantzukizuna pizteko, parte hartzeko marko eta aukera berriak pentsatu behar dira. Orain arte egon diren aukerez haratago, gizarteak demokrazia zuzenagoa eskatzen du, eta marko berriak, horizontalagoak, erabakiak hartzeko gaitasuna, etab.

“Biolentzia sufritzen duten emakumeen akonpainamendua egiteko dinamika martxan jarri dugu eta harrিতa gaude zein jende ezberdina hurbildu den. Formakuntza eginarazi diegu, lau ordu hiru saio, bada nahikotxo eta hala ere hogeit lagunetik gora hurbildu dira. Emakume ezberdinak, formatu ezberdinetan jendeak parte hartzen du”

Komunitatea

Tendentzia orokortu moduan ere, aipatu beharra dago ere **zaintza ulertzeko modu asko eta ezberdinak** daudela, eta askotan hau modu itxi edo murriztean ulertzen dela, zaintza fisiko eta materialak asetzerantz bideratuta dagoen ekintza baten moduan. Zaintza ordea, modu zabalean

ulertuta, ekintza ugari barne hartzen ditu, horietako asko, eremu intimo eta familiarretik kanpo ematen direnak.

Gainera, ezjakintasuna ez da bakarrik zaintza eta zaintza lanetara mugatzen, baizik eta menpekotasun egoera baten aurrean zer egin edo nola kudeatu, zeintzuk diren aukeran dauzkagun zerbitzu eta errekurtsioak...

“Pasa arte ez dakizu zer egin behar den eta gertatzen zaizunean erabat ezjakina zara”.

Komunitatea

Ondorioz, zaintzaren inguruko jakintza eta pentsaera landu beharko litzateke, sentzibilizazio edo hezkuntzaren bidez, zaintza guztion ardura delaren ideia hedatzeko, eta menpekotasun egoera batean aurrean nola jokatu jakin ahal izateko.

“Zaintzaren gaia lurreratu behar da. Bakoitzak bere aldarrikapenak aurkeztu behar ditu, noski. Baina nortzuk gaude eta zertarako erabaki behar da”.

Hirugarren sektorea

Bestalde, aski ezaguna den moduan, euskal **gizartean abian dagoen marko kultural eta baloreetan** oinarrituta, zaintza familiek edo norbanakoek bere eremu pribatuan kudeatzen den kontu bat da, emakumeak izanik ardatz nagusia. Horrek esan nahi du, alde batetik, familiek beren gain hartzen dutela erantzukizun guztia, horrek ekar ditzakeen kostu psikologiko, sozial eta/edo laborekin. Eta bestetik, zainketarako laguntzaren eskaintza intromisiotzat hartu ahal izatea eta familiak zaintzeko daukan gaitasuna zalantzan jartzea. Kanpoko laguntza onartzea, hortaz, norberaren edo familiaren zainketa-erantzukizunetan porrot gisa har daiteke. Hala, ahultasuna eta zainketa “ezkutuan” bizi diren errealitateak dira, familiaren barruan.

“Eskatzeko lotsa dago, txutxu-mutxu asko dago... Nik nahiago ezezagun batek laguntzea, lagun batek baino . Pentsa seme alabak ditu eta ez diote kasurik egiten...”

Komunitatea

“Estigmagatik ez goaz zerbitzu sozialetara. Gure kaxa antolatzeko joera dugu, eskatu gabe.

Bertakoak, kulturagatik, ez dugu eskatzen.”

Komunitatea

Zaintza etxean eta etxekoen artean antolatzeko aukera ezinezkoa denean, ohikoa da etxeko langile bat kontratatzea. Azkeneko datuen arabera Gipuzkoan 10.000 emakume aritzen dira etxeko langile gisa, hau da 50-70 biztanleko etxeko langile bat dugu. Zaintzan aritzen den langile hau normalean emakumea eta migratutakoa da, eta gehienetan egoera oso zailtan egiten du lan. Aipatu beharra dago, aukera hau bakarrik dela eskuragarria egoera ekonomiko egonkorrean edo onean dauden pertsona eta familientzako.

Las trabajadoras del hogar se consideran de menos derechos. ¿Cómo nos pueden demandar? Se preguntan las familias... Creen que las han sacado de la calle, les dan un techo, de comer, les tratan bien.... A las personas migrantes se les niegan esos derechos.

Hirugarren sektorea

Ondorioz, zaintza gizarteratu edo modu komunitarioagoan ulertzeko zailtasun eta erresistentzia handiak aurkitzen dira. Baita zaugarritasuna eta laguntza beharra onartzeko, soilik espazio intimoetan onartu eta partekatu daitekeen egoera bat dela ulertuta. Ondorioz, onartu beharra dago nahiz eta beharrezkoa moduan ikusi dezakegun bizilagunak edo komunitatea zaintza sisteman txertatzea, modu orokorrean hedatua dagoen balio sistema ez dugu lagun izango. Hala eta guztiz ere, komunitatea aktibatu eta zaintzaren aldeko dinamikak martxan harri direnean harrera beroa izan da.

“Pandemian adinekoei telefonoz deitzea detaile bat izan zen, nik ezagutzen ditudanek ez zuten deus behar, baina asko estimatu zen deia”.

Komunitatea

“Deiak jaso genituen Udaletik eta asko eskertu zen. Seme alabak ez zituztenei gauzak eramaten zizkieten (errekaduak). Oso interesgarria izan. Konpainia ere eskaintzen zitzaien.

Komunitatea

Bestalde, kolektibo edo pertsona zaugarrienen artean, **atzeritarrak (bereziki adingabeak eta emakumeak) eta etxegabeak aipatu dira**. Agian ez da zuzenean zaintzarekin erlazionatua dagoen behar edo arazoa, baina bai kontuan hartzekoa, gizarte zerbitzuen edo udalaren ikuspuntutik. Bai nabarmendu behar da, ordea, egoera honetan dauden pertsonak, zaintza behar nabarmenak dituztela, eta behar hauek asetzeko zailtasun handiagoak.

“Adingabekoekin ere lan egiten dugu, eta haien bidez atzean duten familiarekin, askotan migratutakoak. Arazoak izan ohi dituzte eskolan, euskararekin... umeei eta gurasoei akonpainamendua behar izaten dute”

Hirugarren sektorea

“Gurera iritsi berri direnen egoera lazgarria da, bereziki emakumeak izaten dira. Hiru urte behar dituzte egoera erregulatu arte, oso gogorra da. Eutsi egin behar zaie, eta ez bakarrik modu ekonomikoan. Larritasunez bizi dute, asko umeei, hemen edo euren herrian... Ikasi nahi dute, baina hizkuntza ere ez dute...”

Hirugarren sektorea

Bukatzeko, zaintza behar gehien dauzkaten pertsona edo egoerak ere nabarmendu egin dira. Alde batetik, **zaintzaileak zaintzea** ere premiazkoa dela uste da. Bai zaintzaile familiarak zein profesionalak, karga handia jasaten dute kasu askotan. Atsedean eta babes programak garatzea oso beharrezkotzat jotzen da, baina baita formakuntza eta prestaketa, egoerak hobeto kudeatu ahal izateko. Arlo horretan asko dira landu daitezkeen esparruak, baina bereziki beharrezkoak dirudite babes psikologikoa, dolua, autoestimua, errutasun sentimenduak... azken finean, aurretik aipatu dugun moduan, zaintza arlo intimoan kudeatzen den beharra izanik, haren kudeaketa emozionala ere bakoitzak bere barnean egiten du, honek dakartzan arriskuarekin.

“La situación de vulnerabilidad va unido a las cargas en origen y la necesidad de mantener el trabajo para la regularización de su situación. Se aguanta en condiciones laborales muy duras”

Hirugarren sektorea

“Beti gaixoa dugu buruan, baina zaintzailea... Oso zaila da gaixo batekin egotea...Burua galtzen du, haserretzen da eta nirekin ordaintzen du...”

Hirugarren sektorea

“Nor zaintzen du zaintzailea? Burokrazia handia dago laguntzak jasotzeko, denbora asko tartean eta izapide gehiegi. Erraztu beharko zen prozesua eta ez horrenbeste mareatu.”

Hirugarren sektorea

Komunitatearen funtzioa zaintzan

Gure gizartean sortzen ari diren arrisku eta gizarte arazoei erantzuteko, hala nola zaintzen krisiari, beharrezkoa da gizarteko alor eta esfera guztien arteko elkarlan eta kooperazioa. Hauen artean, eragile bereziki garrantzitsuak identifikatu daitezke, tartean gure kasuan gehien interesatzen zaiguna, komunitatea. Hala ere, esan bezala, kasu honetan tokiko logika batetik, beharrezkoa da ezagutzea esfera bakoitzak egiten duen edo egin dezakeen ekarpena zein den. Alegia, arlo publikoak egiten duenaz haratago, merkatuak daukan eskaintza, Hirugarren sektoreak egiten duen lana, familiek jasaten duten karga, eta komunitateak egiten duen ekarpena.

Zaintza sistemen antolamenduari dagokionez, nabarmendu beharreko ideia nagusietako bat esferek betetzen duten funtzioaren arteko osagarritasuna da. Logika hori kontuan hartuta, zaintzaren horniduran parte hartzen duten esferek ondo bereizitako funtzioak betetzen dituzte, eta nekez ordezkatu daitezke. Eta komunitatearen funtzioa bereziki ordezkazina dela ulertzen da. Hau da, sektore publikoak edo merkatuak behar material bat hornitzen badu, ematen den laguntza edo zaintza mota ez luke aldaketa handirik izango. Baina, komunitateak hornitzen dituen zaintza erlazional edo emozionalen kasuan, prozesu honetan adierazi den bezala, adiskidetasuna ezin da erosi.

“Cuando eres voluntaria, pones el tiempo que quieres pero sí la emoción y si dejas de ponerlo, no lo haces. Es persé. Este vinculo es muy diferente con la persona que está sola en casa, eso no lo puede hacer la administración, no lo puede asegurar con el contrato. Hasta ahí no llega.”

Hirugarren sektorea

“Cual es la diferencia ente lo publico y lo comunitario. Este debate ha salido. Que puede hacer y que no el voluntariado. Que papel las instituciones, todo tienen que hacerlo desde la administración? Un temazo... Hay una parte que no se puede cubrir desde la administración. Esta puede poner recursos, pero no lo pueden hacer trabajadores.”

Komunitatea

“La parte de la emoción. Una persona que cobra no lo pone, o no tiene por que ponerlo.”

Komunitatea

Zaintza komunitarioa eguneroko bizitzan gertatzen diren mikroharremanez osatua dago. Komunitateak zainketan duen funtzioa, erlazio eta gizarte harremanen esparruan ematen da, eta kasu batzuetan ere, izaera instrumentaleko laguntza txikieta. Azken hau izan da kasua, adibidez, pandemia garaian sortutako zaintza sare askoren helburu nagusia. Zein da baina, komunitateak edo eragile komunitarioak betetzen duten edota bete dezaketen funtzio konkretuak?

Harreman horiek izan dezaketen antena-funtzioa ere nabarmendu da, arrisku edo zaugarritasun jakin bateko egoerak detektatzeko balio baitute. “Bigilantzia” hori, zentzurik positiboenean, lagunen edo bizilagunen artean egin daiteke, baina merkataritza-eremuarekin koordinatzeko potentzial handia ere badu (adibidez, bezeroen ohiturak ezagutzen dituzten kioskoak edo okindegiak, eta beren patroietan aldaketak hauteman ditzaketenak), eta, bereziki, erakunde publikoekin harremanean jarritz.

La función de lo agentes comunitarios debe ser convertirse en los ojos, para poder detectar. Son espacios que se detectan situaciones, por ser espacios en los que las personas invierten tiempo.

Servicios sociales, y también nosotros en otro nivel,-Caritas-, funcionamos con cita, con un cuestionario, no es tan natural. Se necesitan espacios más ligeros en ambiente, menos protocolo.

Desde el Hola, que tal estás... que se comparta barrio, comercio.... Una relación más personal.

Situaciones que desde el despacho son difíciles de ver.

Hirugarren sektorea

Komunitateak zaintzan daukaten edo izan dezaketen funtzioa aski onartua da gizarte mailan, baina praktikan daukan intzidentzia ezagutu eta neurtzea zaila suertatzen da. Gai honen inguruko ikerketa eta esperientziak hedatzen doazen arren, baita gure inguruan (ikusi, Zuñiga eta Arrieta 2021), jakintza eta erreferente falta nabaria dago oraindik, batez ere ulertzeko eta jakiteko nola edo zein modutan babestu, sortu edo indartu ditzakegun zaintza sare komunitarioak.

Pandemia garaian sortutako zaintza edo babes sare komunitarioak adibide ona izan dira, baita Erreterian, komunitateak izan dezaketen balioa berresteko. Pasadan urtean garatutako ikerketa parte hartzaile prozesu bati esker, (*Zaintza ekosistemak*-Etorkizuna Eraikiz 2021) ondoriozta dezakegu, sareek egindako lana edo behintzat aurkeztutako potentzialitatea oso modu positiboan baloratu egin dela. Bai partaideen aldetik, zein instituzio publikoen aldetik. Nahiz eta egungo egoeran sareak “desaktibatua” dauden kasu gehienetan, egindako lanaren fruitua geratu egin da, eta momentu

honetan dagoen erronka nagusia, sare hauen jasagarritasuna eta zaintza sisteman txertatzeko aukerak aztertzea izango da.

Era berean, argi geratu dena, koordinazio eta elkarlan publiko-komunitarioa egon denean, balorazioa oso positiboa dela. Sareek udalaren babesa izan dutenean, hauen eraginkortasuna biderkatu egin da. Edo beste era batera esanda, komunikazio edo erlazio publiko-komunitarioa zaila izan denean, sareen potentziala ez da bere osotasunean garatu. Ongizatea hornitzen duten esfera eta agente ezberdinen arteko lankidetzak gero eta beharrezkoagoa suertatzen da, baina honek zailtasun eta erronka ezberdinak planteatzen ditu. Alde batetik, egitura eta antolaketa instituzionalak eraldatu beharko ditugu, partaidetza eta lankidetzak eredu berriak, antolaketa instituzional edota lan egiteko modu berriak eratzeko.

Gizarte zentroak: elkartzeko espazioa

Errenteriak agenda kultural zabala du eta maila handi batean auzoan errotuak dauden eragileei esker gertatzen da. Jubilatuen elkarteak, auzoetako emakume taldeak eta auzo elkarte ugari daude herrian barna barreiatuak eta haiek dira eskaintza horren sustatzaile nagusiak.

Orain dela lau bat hamarkada sortutako eragileak dira guztiak eta gehienetan, sortu zituzten lagunak jarraitzen dute lanean, belaunaldien arteko erreleborik gabe. Arazo bat izan daitekeen hori baina, aukera ere bada, azken finean hiru espazio horiek adineko jendearen erreferente direlako. Batetik, tokiko ikuspegitik gertu dituztelako, auzoan bertan etxetik hurbil; bestetik, eragile ezagunak zaizkio, 40 bat urtez egon direlako lanean eta azkenik, bertan dabiltzanak adineko pertsonak izanik, erreferente ezagunak zaizkie.

“Emakume talde eta jubilatutako taldeek egiten duten lana baloratu behar da, Errenteria ez da hain herri handia eta elkarte mardoa dira urte askoz eskaintza egiten. Partaidetza da, egia da ludikoa dela, aldatu daitekeela. Baina prebentzio oso handia egin dute”.

Udala

Eragile hauen oraina eta etorkizuna ez da nahi bezalakoa, gehienek ez dutelako belaunaldi erreleborik. Zaila da belaunaldi ezberdinen arteko harremana eta lan dinamika eta gabezi honek kalte handia egin du Covid 19ak eragindako pandemian.

“Ez dago erreleborik, zaila da lan egitea adineko pertsona hauekin. Horrela izan da beti eta horrela izan behar dela uste dute”

Udala

“Pandemiarekin euren aktibitatea eten zuten hiru eragile mota hauek, izan ere, zaugarrienak dira. Berriz martxa hartzeko aukera egon denean, baina, batzuk ez dira berriz hasi eta erreleborik ez dagoenez euren etorkizuna ere kolokan dago”

Udala

Partekatzen duten auzoetan bertan eragile hauen arteko hartu emana ez da askotan behar bezalakoa. Ez dago euren arteko komunikazio edo loturarekin eta modu independentean, eta askotan giro ez egokian aritzen dira. Udalarekin hamarkada luzeetan garatu duten harremana ere ez da oso egokia.

“Auzo elkarteak, emakume taldea eta jubilatutako taldeak, eta batzuetan harremanik ez. Pontikan lau lokal publiko hiru eragileren artean kudeatzen dituzte eta harreman konfliktiboa dute. Eskaintzan ere kompetentzia bidez funtzionatzen dute. Hiru zunba klase daude auzo berean eta ordutegi antzekoan adibidez! Auzogintza egitea ezinbestekoa izango zen, baina ez dira batere moldatzen”.

Udala

“Udalarekin duten harremana ere ez da samurra, oso demandanteak dira. Eskatu bestetik ez dute egiten, elkarrizketa bat sortzea oso zaila da”

Udala

Azterketan zuzenean emakume taldeekin aritu gara eta bilakaera nabarmena izan dute euren hastapenik hona. Hasiera batean emakumeak, gehien bat zaintzari lotuta etxean lan egiten zutenak, etxetik ateratzeko aitzaki gisa sortu ziren, haien erakargarria izan zitekeen eskaintza antolatuz eta euren alfabetizazioa ere sustatuz.

“Emakume elkarteak orain dela 40 urte sortu ziren, emakumeak etxetik atera eta haien alfabetizazioan laguntzeko. Auzoetan errotu ziren eta kirol, kultur eta aisialdi eskaintza ematen hasi ziren. Arnasgunea bihurtu zen emakume askorentzat”

Udala

Gizarte Zerbitzuen departamenduarekin zuten harremana, bertatik sustatu ziren eta emakume etorkinen integrazioarako eta indarkeria matxista sufritzen duten emakumeen detekzioarako oso espazio interesgarriak izan dira.

“Gizarte zerbitzuekin harreman zuzena zuten eta Errenteriara iritsi berri ziren zenbait emakume bertara bideratu izan dugu, haiekin hartu emana izan zezaten. Indarkeria matxistako kasuak ere detektatzeko balio izan dute urteetan zehar”

Udala

Testuingurua erabat eraldatu da 40 urte hauetan, emakume gazteagoak etxean zein etxetik kanpo lan egiten dute orohar eta ikasketa maila asko handitu da. Hala eta guztiz ere, emakume talde hauek funtzionatzen jarraitzen dute eta aisialdi, kultur eta kirol eskaintza antolatzeaz gain topatzeko eta elkartzeko espazio dira. Bertan lanean dabiltzan emakumeek horrela ulertzen ez duten arrera, elkar aurkitzeko eta zaintzeko espazioak dira.

“Elkartean gauden emakume gehienak ez dugu bakardadea sentitzen, elkarreak horretan ekarpen handia. Bertara joateko prestatu, ateratzeko aitzaki bat dugu, jendearekin egon... arratsaldea pasatzen dugu”

Komunitatea

“Topaketarako espazioa da elkarrea. Ezagutzeko, etxetik atera eta emakume gehiagorekin egoteko, taldeak ere osatzen dira hortik.”

Komunitatea

“Emakumeek zaintza lanak alboratzeko aitzakia ere badira elkarteko aktibitateak. Biloben zaintzarako aitzakia da. “Gaur klasea dut eta ezin dut! Etxean egoteko ez lukete ezetz esango. Biloben zaintza gehiegizkoa da. Lehen umeak ekartzen zituzten, orain amonak doaz euren etxera, edozein ordutan, batzuk goizeko seitako!”

Komunitatea

Elkar aurkitzeko espazioa hauek oso garrantzitsuak dira herritar guztientzat, baina are garrantzitsuagoak adinean gora doazen horientzat. Covid-19ak gure jendartean ekarri duen eraldaketak gizartea elkartzeko tokiak eta momentuak asko murriztu dituelako. Pertsona nagusiak

gainera, haien denboraren parterik handiena bizi diren inguruan pasatzen dutenez, berebiziko papera jokatzeko auzoetako emakume elkarte, jubilatuen elkarte edota auzo elkarteek.

Errenteriako zaintza mahaia. Aukerak eta desabantailak.

Hurrengo lerroetan, Errenterian “zaintza mahai” baten beharra eta sorreraren inguruan ateratako ideia batzuk aurkeztuko dira, prozesu honetan zehar lortutako informazioan oinarrituta. Egindako elkarrizketetan landutako gaien artean, espazio honek izan beharko lukeen egitura, helburuak, funtzioak, etab. aztertu egin dira. Aipatu beharra dago, elkarrizketatu askok ez dutela espazio honen inguruan aurretik hausnarketarik egin, eta hortaz, lortutako informazioa ez dela oso ugaria izan kasu askotan. Honen harira, aipatu beharreko lehen kontu bat azaleratzen zaigu, alegia, eragile batzuek ez dute espazioaren beharra sentitzen, ezta beren burua bertan ikusten. Hau izan daiteke adibidez, elkarrizketatutako emakumeen elkarrekin kasua. Honek ez du esan nahi beharra ez dagoenik, edota eragile hauek adibidez egin dezaketen ekarpena beharrezkoa ez denik, baizik eta sentzibilizazio eta prestaketa lan bat burutu beharko litzatekela mahaia sortu aurretik.

Hala ere, beste kasu batzuetan, “mahaia” eratzea alternatiba bat izan daitekela planteatu egin da, eta hau sortzeko irizpide eta ezaugarri batzuk identifikatu egin dira. Egituraren eta partaideen aldetik, nabarmena da esparru ezberdinetako agente eta eragileak elkartzen dituen espazio bat izan beharko litzatekela. Arlo publikoaren aldetik, Gizarte Zerbitzuek edota berdintasun sailak zentralitate handiagoa izan dezakete, baina interesgarria izan zitekeen zeharkakotasun handiarekin jokatzeko, udal instituzioko sail ezberdinak parte hartuz momentu edo egoera konkretuetan. Hau beti ere mahai honen helburuak eta funtzioak zeintzuk diren baldintzatuko du.

“Mesa de servicios sociales. ¿Sólo servicios sociales? ¿Hacia donde va?”

Hirugarren sektorea

Gainera, udalaren inplikazioaz haratago, beste eragileak zeintzuk izan beharko liratekeen aztertzerakoan, zailtasun handiagoa aurkitu dezakegu. Agente eta eragile ezberdinen arteko aldea oso handia da kasu batzuetan, bai tamaina, interes, zein beste arrazoiengatik. Hortaz, espazio honek izan beharko lukeen funtzio eta helburuen arabera, partaide batzuk edo besteak integratzea komeniko litzateke. Eragileen arteko ezberdintasuna hain handia izanda, zaintzarekin erlazioa duten agente denak edo gehienak espazio berdinean batzeak zentzu pragmatiko edo operatiborik ez izatea planteatzen da.

Badaude eztabaidarako eta partekatzeke espazio eta komisio ezberdinak eta zentzu honetan,

kolokan jartzen da espazio berri baten sorkuntzaren beharra. Kasu askotan, beharra argi ez dagoenez, helburua zein izan behar den ere ez dago argi. Nabarmendu egin da “praktikoa” izan behar dela, eta nolabaiteko erabakitzeko eskubidea izatea, hau da, proiektu edo esparru konkrituren batean funtzio eta eskumenak izatea. Ondorioz, mahaiaren sorrera proiektu edo dinamika zehatz batera lotzea aukerarik egokiena izan daitekeela uste da.

“Debería de ser muy práctica. Hay mogollón de mesas, comisiones, espacios para compartir. Dirigido por el Ayuntamiento. Una mesa más que para compartir, para toma de decisiones, detectar y generar proyectos concretos. Profundizar en situaciones más concretas, planteamientos, objetivos por curso, aterrizar.

Hirugarren sektorea

Egitura, hortaz, mahai honen funtzio eta helburuen arabera izan beharko litzateke. egungo egoeran, interes komunak ez dauzkaten agenteen arteko mahaia sortzeak arrisku nabariak izan ahal dituela ondoriozta dezakegu. Ondo definitu behar da zertarako den beharrezkoa eta espazioa, eta zergatik da garrantzitsua bertan parte hartzea.

“Queremos tener claro para saber si queremos o no estar ahí.”

Cruz Roja

Laburbilduz, mahaia sortzeko edo eratzeko helburu definituak beharko dira, baita bere lana gidatuko duen eginkizunen bat. Zentzu hontan, proiektu edo prozesu konkritu baten inguruan diharduteak, zentzua eta balioa emango liokela uste da. Beste era batera esanda, ekimen edo proiektu partekatu bat eukitzeak, mahaiaren sorrerarako aitzakia ona izan daiteke, eta zentzua emango lioke bere izateari.

Gizarte zerbitzuak: hariak josteko orratza

Errenteria aukera eta interes handiko herria da zaintza eta gizarte arloan berrikuntza eta esperimentazio proiektuak garatzeko. Estatuko beste udalerriekin konparatuta, urte askotan zehar Gizarte Zerbitzuetan biztanleekiko gehien inbertitzen duen udala izanik³. Azken urteetan modu positiboagoan antzeman da Udalak gobernantza ereduak aldatzeko daukan disposizioa. Zentzu horretan, aintzat hartu behar da disposizio hau aukera berriak zabaltzen dituela, herritar eta eragileen aldetik aldaketarako nahia aitortzen delako.

“Muy buena relación, muy cercanos y accesibles.

En los tres cuatro últimos años ha dado un cambio impresionante. Se ha acercado más a la población y a las situaciones de verdadero riesgo. Más que un esfuerzo, ha hecho un sobre esfuerzo”

Hirugarren sektorea

“Ez dakit lortuko dugun, baina harreman gertuko eta estua izaten saiatzen gara Udaletik eragile sozialekim. Udal hau asko ireki da azken urteetan. Urrats handia egin da, espazio partekatutak daude, boterea partekatzen dugu. Konfiantza giro bat sortu da.”

Udala

Hala ere, normala den moduan, Gizarte zerbitzuen egoerak, arazo edo mugak ere planteatzen ditu. Nabarmenena, Gizarte Zerbitzuak gainkarga egoera batean aurkitzen direla. Egoera hau nahiko ohikoa da gure herrialdeko Lehen Arreta zerbitzuetan, baina egoera bereziki konplexua dirudi momentu honetan Errenterian.

“Sólo desde lo público es inviable, no hay suficientes medios. Ahora saturados, pero aunque estuviera bien, tampoco.”

Hirugarren sektorea

“Dirua eta lan zama, koordinazioa.... Egungo gizarte zerbitzuek ezin jasan. Gaurko estrukturak ezin.”

Udala

³ “Rentería es el municipio que más gasta en servicios sociales de todo el Estado español” El País.---

La localidad guipuzcoana (con 275,74 euros) es la mejor de los 31 Ayuntamientos mayores de 20.000 vecinos que alcanzaron en 2017 la excelencia en inversión en servicios sociales, los más próximos al ciudadano y los más necesarios en caso de vulnerabilidad

“Gizarte zerbitzuetan aurrekontua etengabe igotzen (pandemiarekin are gehiago) baina hala ere, ezin danera iritsi... Jasangarria da? Noiz arte igo? Baina zein dira lehentasunak? Beti uste dugu lan lerro guztiak behar dutela gehiago, baina egon behar da ere erantzunkidetasuna une honetan honetan inbertituko dugu, eta beste lerroek asumitu”

Udala

Bestetik, nahiz eta ez izan Errenteriako ezaugarri konkretua, eta euskal Gizarte Zerbitzuen sisteman ohikoa den moduan, ez daude udalean lan komunitarioa egitera bideratuak dauden profesional konkretuak. Hau da, ez dago lan komunitario egiteko enkargua daukan profesionalik. Nola ez, arestian aipatutako gainkarga eta errekurtsio falta honetan eragin zuzena izan dezake. Gainera, herritar asko, laguntza behar duten arren, ez dira Gizarte Zerbitzuetara joaten, Gizarte zerbitzuek duten estigma, harremana garatzeko ezezagutza edo hitzordua hartzeko zailtasunak direla medio.

Erpin komunitarioa ez dugu. Administrazioa dago, hirugarren sektorea, baina denok elkarrekin egin beharreko espaziorik ez dago.

Udala

Hori dela eta, Gizarte Zerbitzuetara iristeko bideak berresmatu behar dira eta denak leku berean fokalizatu beharrean, Gizarte Zerbitzuetara iristeko ate berriak eta hurbilagokoak eraiki behar dira, herrian barna banatuak, herritarrengandik gertuago daudenak eta konfiantza giroan eratuak. Emakume etxeen esperientzia adibide ona da ideia hau berresteko. Alegia, erlazio mota eta bide berriak eraikitzen direnean, Gizarte Zerbitzuekin edota beste instituzio publikoekin dagoen hartu emana eta elkarlana asko hobetu daitekeelako.

“Emakume etxea ireki denetik emakume asko hurbildu dira laguntza bila. Lehen gizarte zerbitzuetara joan zitezkeen, baina ez ziren joaten. Udala bera da, ate da aldatu den bakarra. Logika antzekoa da, jendea ez doa gizarte zerbitzuetara duen estigmagatik, baina bai agian auzoko dendara. Ate gehiago irekitzea da kontua, gertutasuna lortzea”

Udala

Pandemiak sortutako konfinamendu garaian egindako dei telefonikoak ere, adibide aipagarri edo

praktika-on moduan ulertu dezakegu. Dinamika honek oso harrera ona izan du herritarron artean. Kasu honetan, lan dexente suposatzen duen lana izan bada ere, bere izaera berritzailea goraiatu behar da, instituzio publiko eta herritarron arteko erlazio mota ezberdin bat izan delako.

Herritarren egoera zein den jakin behar da, horretarako deiak ondo egon ziren.

Pandemian adinekoei telefonoz deitzea detaile bat izan zen, nik ezagutzen ditudanek ez zuten deus behar, baina asko estimatu zen deia.

Komunitatea

Zentzu honetan, mugarik argiena Gizarte Zerbitzuen sistema kasuen arretara eta prestazioen kudeaketara bideratuta dagoela da. Lan honek ia baliabide guztiak xurgatzen ditu, eta arlo komunitarioan jarduteko espazio gutxi edo batere ez du uzten. Horrek Gizarte Zerbitzuentzat funtsezkoa den eztabaidara garamatza, alegia haren xedea definitzea. Hau da, Gizarte Zerbitzuen helburua zerbitzu eta prestazioen kudeaketa baino ez bada, edo lan eta esku-hartze komunitario, harremanezko eta sortzaileago baterako lekua egon behar badu. Alde horretatik, hemendik ondorioztatzen den interpelazio politiko eta instituzional nagusia da, hain zuzen ere, aldatu egin behar ditugula ongizate eta zaintza-sistemak egun antolatzen dauden zerbitzuak eta modua. Baina hau ezin da soilik zerbitzu publikoak defendatzera mugatu, edota Estatuaren eta publikoaren zentralitatearen diskurtso idealizatua berreskuratzea, baizik eta zerbitzu horiek aldatzea, oro har, herritarrek parte hartzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzekeko guneak irekiz.

“Gizarte zerbitzuetan beharretik lan egiten da, suak itzali egiten dira etengabe. Horri buelta eman behar zaio eta prebentziotik lan egin, gizarte zerbitzuak beste alde batetik aritu behar dira ere”

Udala

Erpin komunitarioa ez dugu. Administrazioa dago, hirugarren sektorea, baina denok elkarrekin egin beharreko espaziorik ez dago. Demanda. Guri exijitzen digute egitea, legeak agintzen ez diguna eta lehen hirugarren sektoreak egiten zuena..

Udala

Beste aldetik, herritarrek Gizarte Zerbitzuei buruz duten pertzepzioari dagokionez, sozialki hedatutako bi elementu daudela ikusi daiteke: lehenik eta behin, ezjakintasuna; eta, bigarrenik, estigma. Lehenari dagokionez, populazioaren zati batek ez daki, besteak beste, gizarte-zerbitzuen

lana, kokapena, dagozkien eskubideak, haientzat izan dezakeen onura edo erabilgarritasuna. Bigarrenik, sistema bazterkeria egoerekin lotzen da nagusiki, eta egoera horretan kokatzen edo onartzen ez diren (edo nahi ez duten) pertsona asko daude. Aldi berean, horrek gizarte estratu jakin batzuen desatxikimendua eragiten du, gizarte zerbitzuak bakarrik biztanleriaren zati zaugarri eta baztertuentzat direlakoan. Gainera, errealitate horren ondorioa da Gizarte Ekintza Sailak edo Gizarte Zerbitzuek sustatutako prozesu batek zailtasunak izan ditzakeela atxikimenduak sortzeko.

Estigmatik ez goaz zerbitzu sozialetara. Gure kaxa antolatzeko joera dugu, eskatu gabe.

Bertakoak, kulturagatik, ez dugu eskatzen.

Komunitatea

Proposamenak

Aurkeztutako informazioan eta elkarrizketetan oinarrituta, interes bereziko proposamen ezberdinak identifikatu egin dira. Nahiz eta ez diren momentuan garatuak izango, hurrengoak aipatu ditzakegu, besteak beste:

Zaintzaren inguruko sentzibilizazioaren beharra

Zaintza tokian-tokiko eragile komunitario eta elkarteetan txertatzea, sare eta dinamika komunitarioen jasangarritasunerako aukera ona izan daitekeela planteatu da. Hau da, herrian dauden eragileak (hainbat alorretan izaera komunitario hori lantzen dutena: kultura, euskara, hirigintza, jaiak...) zaintzaren gaia bereganatzea. Nahiz eta urteetan lan komunitarioa egiten diharduten, zaintza ez da ohikoa izan den gaia. Hortaz, planteatzen den erronka, elkarte ezberdinek (auzokide elkarteak, jai batzordeak, etab.) zaintza haien jardunean integratzea izango litzateke.

Zaintzarako aholkularitza zerbitzua

Zaintza eta zaintzak dakartzaten lan eta zailtasunen inguruan dagoen ezagutza eskasean oinarrituta, aholkularitza eta orientazio zerbitzu bat eratzea lagungarria eta beharrezkoa dela proposatzen da. Zerbitzu honen eginkizuna, bi norabideetan zehaztu daiteke: batetik, zainketa behar duen pertsonen edo beren familien egoera kudeatzera lagunduko duen zerbitzua; eta bestetik, zaintzaren arloan jardun eta lan egin nahi duten pertsonak orientatu ahal dituen.

Zaintzaren behatokia

Prozesuaren hasieratik gogoan egon den “mahaia”-rekin erlazioa izan dezaken proposamenetako bat, zaintzaren behatoki moduko bat sortzea izan daiteke. Lidergo publikoa izanik, behatoki honek egin dezakeena, ikerketak burutu eta agente ezberdinekin erlaziorako eta eztabaidarako espazioak sortzea izan zitekeen. Hau da, zaintzaren arloan diharduten eragile ezberdinen arteko saretzea, informazioa partekatzea, eta ikerketa konkretuak garatzea.

Osasun mentala eta babes psikologikoa

Diagnostiko prozesu honetan zehar nabarmendu den gaietako bat, eta orokorrean gizartean gero eta garrantzi handiagoa bereganatzen ari dena, osasun mentalaren arloa da. Berau lantzeko proposamen ezberdinak egin daitezke, tartean arestian aipatutako sentsibilizazioa, baina esku hartze zuzenagoa behar dela nabarmendu egin da. Konkrétuki, pertsona nagusien elkarteekin esku hartzea egitea proposatu da. Hau da, nolabait elkarte hauetan dauden pertsona nagusiek psikologo batekin erlazioa edukitzea, talde esku hartze bat bada ere.

Zaintzaileak zaintzeko programak

Bai zaintzaile familiarrek zein profesionalak, karga handia jasaten dute kasu askotan eta hauen atsedean eta babes programak garatzea oso beharrezkotzat jotzen da, baina baita formakuntza eta prestaketa, egoerak hobeto kudeatu ahal izateko.

ETXEKO-LAN lan poltsa publikoa indartu

ETXEKO-LAN, etxe-landetan edo zaintzan lan egiten duten pertsonen gaitasunak hobetu, beren lan baldintzak bermatu eta aldi berean, eskualdeko familiei zuzenduriko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua indartzea. Duela urte batzuk Oarsoaldeko Udalen garapen agentziak martxan jarri eta oso ondo funtzionatu bazuen ere, orain ez du indar bera.